

Diziplinen arteko bidegurutzak

Laburpena: Aldiriren bokazioetako bat diziplinen arteko bidegurutzak azalartzea izan da. Kasu honetan, arkitekturaren eta artearen artekoari erreparatu zaio, eraikitze-praktikaren konplexutasunaren adibide.

Hitz-gakoak: bidegurutzak, diziplinak, konplexutasuna, kontzeptuen oinarritutako arkitektura.

Abstract: One of Aldiri's aims has been to highlight the interdisciplinary crossovers. In this issue we have focused on the intersection between architecture and art as part of the complexity of the building practice.

Keywords: crossings, disciplines, complexity, concept driven architecture.



Laura Maioz Basterretxea
Irakaslea eta arkitektoa

Jasotze data: 2021-06-28
Onartze data: 2021-09-21

«Eraikina emandako osagai bat da, erabilera gutxi duena eta esanekoa dena; baina, izatez, galderak sortzen dituen hasiera bat besterik ez da, haratago zer egon litekeen, eta zenbat norabide har litekeen itaunarazten duena. Hori da, zehaztasun nahikoz, eraikinak atzematen ditudan modua. Sutsuki ederra dena berez, baina eskatzen edo probokatzen duena halako handitze bat».¹

Galderak abiapuntu

Egoera espazial bat bere horretan onartu beharrean, hura ezbaian jartzeko haziak ereiten dira arkitektura eraikitze-praktika bat baino askoz konplexuagoa dela onartuz gero. Arkitektura eta artea uztartzen direnean, esaterako, edota arkitekturari balio politikoa aitortzen zionean, praktika zentzu zabalago batean jorratzeko aukerak irekitzen dira.

Diseinu urbanoak eta arkitektonikoak politizatuta daude, nahiz eta haien diseinatzerakoan egiten diren hautu asko neutrotzat jotzen diren. Hiri eta eraikinek hartzen dituzten egiturak eta erabilerak erabaki politikoen emaitza dira eta, oro har, ideologia hegemonikoaren printzipioen araberakoak (segurtasuna, pribatutasuna, zirkulazioa, publikotasuna... modu jakin batean definitzen dira). Foucault pentasariak sakon aztertu zituen gizartea kontrolatzeko botereak erabiltzen dituen mekanismoak, eta horien adibide nabarmenena Bentham-en panoptikoa da, etengabeko bigilantzia ikusezina ahalbidetzen duena. Arkitekturaren erantzukizun politikoa izan zuen hizpide, duela hilabete batzuk, Ula Iruretagoiena aldiritarrak Argia

aldizkarian egin zioten elkarrizketan (<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2719/ula-iruretagoiena>), eta aipagarria da Hiri eta Bestelako Politikak proiektua ere, urte batzuetan zehar martxan egon dena (<https://www.tabakalera.eus/eu/hiria-eta-bestelako-politikak-2017-2018>).

Eraikinek proiektatzen duten neutraltasun eta baretasunaren atzean, baina, alderdi ugari ezkututzen da: haien barne- eta kanpo-bizitza, askotariko komunitate, programa, konexio espazial edota harremanak... Galdetu al diogu inoiz geure buruari zer azalartuko litzatekeen, onartutako printzipioez harago, beste logika batzuei jarraituko bagenie eraikin bat aztertu edo zapaltzen dugun aldiro?

Hiri eta bizileku ditugun espazioen inguruko galderak egiteko aukera bat da merkatuaren logikaz haragoko arkitektura eta artea uztartzea; arkitekturaren ohiko praktikatik kanpo, askotariko adierazpideen bitartez eraiki edo deseraikitze bideak irekitzea. Gordon Matta-Clark arkitekto-artistak 70eko hamarkadan egindako lanak erreferentzia izan dira sortzaile askorentzat. Egun, Lara Almarcegui, Sergio Prego edota Maushousekoen lanei erreparatzea daukagu.

CCA Kanadako arkitektura-zentroak 2019an kaleratutako *The Museum Is Not Enough* argitalpenaren lehen alean, arkitekturaren gaineko gogoeta interesgarri eta sakona egiten da. Arkitekto eta hirigileen zeregina gutxietsi gabe, momentu batean hau dio: «Erronka urbano bati erantzuteko, beti ez da beharrezkoa zerbait eraikitzea. Askotan, ideia bat besterik ez da behar, eta hori gauzatzeko helburu eta energia». Horren adibide jartzen du Sarah Ross-ek egindako

¹ Judith Russi-Kirshner-ekin izandako elkarrizketa. Gordon Matta-Clark, IVAM Centre Julio González, Valentzia, 1992/1993. Erakusketarako katalogoa.



1. irudia - Gordon Matta Clark, *Cutting*, 1972.
Iturria - Domeinu publikoa.



lana², diseinuaren bidez espazio publikoa auzitan jartzen duena.

Kontzeptuak oinarri

Jean-Pierre Cometti pentsalariaren hitzak hartuta, «bizitzaren eta artearen artean ez dago bereizterik», nahiz eta arteari izaera autonomoa eman izan zaion askotan.

Artearen isolamenduaren kontrako aldarrikapenak XX. mendeko bigarren zatian garrantzi handia hartu zuen. Joseph Beuys artistak, esaterako, arlo sozialarekin

² <https://www.insecurspaces.net/archisuits.html>

eta egunerokotasunarekin lotzen zuen artea; etika eta politikarekin lotzeaz gain, museotik eta elite-zirkuluetatik kanpo kokatu zuen. Hala, berria zen horizontaltasun bat proposatu zuen: «borondate espresiboa eta sentsibiltate artistikoa» zuen edonork sor zezakeen artea. Artea ez zuen borondate estetiko eta objektualetara mugatzen, ideiek — eta horiek zekartzaten akzioek— hartu zuten garrantzia.

1967an Sol LeWittek erabili zuen lehen aldiz «kontzeptual» terminoa. LeWitten azalpenaren arabera, arte kontzeptualean «ideia edota kontzeptua da artelanaren alderdirik garrantzitsuena. Artista batek artearen forma kontzeptual bat erabiltzen duenean, horrek esan nahi du plangintza eta erabaki oro aurretiaz hartu dituela, eta gauzatzea bera azaleko kontua dela».

Kontzeptuarekin lan egitea artearen esparruarekin lotuta egon zen arren, urte gutxi batzuk geroago, 1970ean, *Design Quarterly* aldizkariak *Conceptual Architecture* ale berezia argitaratu zuen. Ross Elflinek dioenez, artearekin loturiko *kontzeptual* hitza arkitekturaren esparruarekin lotzeak mesfidantza sortu zuen. Hala ere, Elflinek hitzaren aldeko aldarria egiten du, *kontzeptualismoa* ulertzen baitu «estrategia transbertsalen multzo» baten gisa, zeinak «zalantzan jartzen dituen hainbat diziplinaren atzean dauden logika eta oinarritzko ideologia».

Arteak egiten zuen bezalaxe, arkitekturak ere bere oinarrian nagusi ziren indar- eta autoritate-dinamikak zalantzan jarri zituen, hein handi batean modernismoaren ideia zurrun eta burgesen kontrako erreakzio gisa. Alabaina, arkitekturaren esparrutik egindako kritika edota aldarrikatutako ideiak —funtzionaltasuna zalantzan jartzea, erabiltzaileari zentraltasuna ematea edota eraikigarriak ziren egiturak baztertzea— eta erabilitako adierazpideak —performanceak, happening-ak, marrazki eta irudi utopikoak...— berriak ziren arkitekturaren esparruan, halakoak artearen esparruarekin lotuago egon baitziren ordura arte. Archigram, Superstudio, Archizoom edota Ant Farm gisako kolektiboek egindako lanak arkitekturaren eta artearen artean koka litezke.

Aldiri erakusleiho

Arkitekturaren praktikak berezkoa duen konplexutasuna azaleratzea izan da Aldiriren kezketako bat, ariketa hori beharrezkotzat izan baitu. Geure burua aldirietan kokatu izana da horren froga nagusia. Adierazpen artistikoen eta arkitekturaren arteko uztarketa topatuko dugu, esaterako, 7. *Arkitekturik gabeko arkitektura* edo 17. *Pentsatu.Marratzu*. Egin zenbakietan; edota 34. zenbakiko «bestelako arkitektoen» testigantzetan, 39. zenbakiko Julien Agirreren artikuluan, 40. zenbakiko Peio Aguirreren saiakera-artikuluan, 44.eko Manu eta Jon Muniategiandikoetxea anaiei egindako elkarrizketan...

///